

## **BALIO PROPOSAMENA**

Gastrobar Itsasota proiektu berritzaile bat izango da, hots, hainbat ezaugarri moderno izango ditu.

Alde batetik, produktu beganoak eskainiko ditugu, gaur egungo gizartean mugimendu honek gero eta garrantzia gehiago eskuratzen ari baitu.

Bestetik, kutsadura murrizteko, aukera egokia iruditu zaigu energia berriztagarriak nagusitzea, plastikorik ez erabiltzea eta material ekologikoak ezartzea, soberakinak aprobetxatuz.

Honekin batera, Euskal Herriko produktuak izango dira nagusi gure plateretan, kontsumitzaile ororentzat oso gustukoak baitira.

Gazteen beharrak asetzeko, “chill out” gunea izango dugu, hau da, momentu lasaia izateko aukera ezinhobea. Hau ez ezik, ikasleentzako gunea ere izango dugu, hots, lanak egiteko toki aproposa. Lanak egitea errazteko, WiFi-a izango dugu dohain.

Lana alde batera utzita, ezinbestekotzat hartu dugu momentu atseginak izatea, beraz, kanpoko terraza handia izango dugu bigarren solairuan, non kontzertu akustiko lasaiak egongo diren, eta berandutzean, techno musika.

Larunbatetan, 18:00 eta 19:00 artean “Happy hour” eskainiko diegu gure bezeroei, non produktuak merkeago eskainiko dizkiegun. Eskaintza ezinhobea!

Gure gastrobarraren itxura fisikoa hurrengo hau izango da, gutxi gorabehera:



Honekin batera, gure lankideetako batek proposamen zehatzago bat egin du, 3D proiektu baten bidez:

<https://home.by.me/es/proyecto/hodeialeixo/gastrobar-itsasota>

Link-an sartzean, goialdean dagoen “copiar el proyecto” botoi urdina sakatu eta bertan izango duzue ikusgai